

ZERGEN ETORKIZUNA

Aldaketa txikiak izan badira ere, ez da espero BEZaren jaitsiera orokorrik

Estatu espainiarrean ekonomiari buruzko mezu baikor ugari entzuten ari diren honetan, zergen etorkizuna eta, bereziki, Balio Erantsiaren gaineko Zergaren (BEZ) eztabaida mahai-gaineratu egin da urtea hasi zenez geroztik. Izan ere, orain dela hiru urteko igoerek kalte handia egin zieten ez kontsumitzaileei bakarrik, baita kultura, ile-apaindegi edota landare bizitegien sektoreei ere, baina aurtan aldaketa batzuk etor daitezkeela dirudi.

Nahiz eta kontsumitzaileak aldaketa handirik ez nabaritu, egia da gaur egungo Estatu espainiarreko datu makroekonomikoak eta orain dela hiru urtekoak ez direla berdinak. Garai hartan hazkunde ekonomikoa gainbehera zihoan eta Estatuak zailtasun handiak zituen bere diru-sarrerak bermatu eta defizit helburuak lortzeko. Horregatik hartu zuen Balio Erantsia-

 **EKONOMIA** / Joseba SALBADOR

Balio Erantsiaren gaineko Zergak (BEZ) eragin zuzena dauka kontsumitzaileengan, zeharkako zerga izanik ez duelako bereizten aberats eta txiroen artean. 2012. urtean igoera handia izan zuen, eta sektore asko kolpatu zituen. Aurtan ere aldaketekin dator, baina aldaketa gutxi eta gutxi batzuen mesedetan izango dira, salatu dutenez.

ren gaineko Zerga (BEZa) igo-tzeko erabakia, kritika gogor-
rak jasoko zituela bazekien
arren. Nazioarteko erakundeek
ere horretara bultzatu zuten
behin eta berriro.

Gauza da igoera horrek kalte
handiak eragin zituela oro har
kontsumitzaile guztien artean,
BEZa zeharkako zerga denez ez
dituelako herritar txiro eta
aberatsak bereizten. Alde bate-
tik, 2012ko aldaketarekin, BEZa-
ren tasa murriztua %8tik

%10era igo zen (janaria, ga-
rraioa eta ostalaritza), eta tasa
orokorra (gainerako ondasun
eta zerbitzuak) %18tik %21era
igo zen.

Igoera honek, era berean, kal-
te handiak eragin zizkien hain-
bat sektore profesionali. Ile-
apaindegien kasuan, adibidez,
zuzenean %8tik %21era igo zen
eta horrek kinka larrian jarri
zuen sektore osoa. Lehenbiziko
urtean, Euskal Autonomia Erki-
degoan 500 enpresa itxi ziren

eta mila langile lanik gabe ge-
ratu ziren.

Baina igoeraren kolpea non-
bait sumatu badute, kulturgin-
tza arloan izan da, sektore ho-
netan ere %8tik %21era igo
baitzen zerga, eta hala, Europar
Batasuneko altuena izatera iri-
tsi zen, luxuzko produktuen
pareko. Sektorean eragindako
kaltea izugarria izan da, batez
ere musikan, arte eszenikoetan
eta zineman. 2008az geroztik
krisialdi sakonean sartuta ba-
dago ere, zerga-igoerak azken
kolpea eman dio. Lehen urteko
eragina neurtzen duten azter-
keten arabera, ikusle kopurua
%30 jausi da eta, diru-sarrerak,
%20 baino gehiago.

KULTURA ESKURAGARRI EGITEA

Datuak ez dira nolanahikoak,
kontuan hartuta kulturgintzak
Estatu espainiarreko barne
produktu gordinaren %3a su-
posatzen duela eta administra-
zioaren gastua %0,66koa soilik
dela. Araba, Bizkai eta Gipuz-
koako ekoizpen-etxeak elkar-

2012an izan zen BEZaren
igoeraren kolpea
kulturgintzak sumatu zuen
gehien. BEZa %8koa izatetik
%21ekoa izatera pasatu zen,
eta hala, luxuzko
produktuen parean jarri
zen. Irudian, jendea
zinemarako ilada egiten.
Juan Carlos RUIZ | ARGAZKI PRESS



tzen dituen Eskena erakunde-ak hauxe nabarmentzen du: «Euro bakoitzeko guk ia lau sortzen ditugu».

Baina diru kontuetatik hara- tago, Eskena erakundeak gai- neratu duenez, BEZaren igoe- raren ondorioetako bat kultura eskuragarri ez egitea da, herri- tarren eskubide bezala onartua badago ere.

Egoera honen aurrean, Esta- tu espainiar osoko milaka era- gilek gutun bat bidali diote az- ken asteotan espainiar gobernuko presidenteari, BEZa jaitسي dezala eskatzeko. Gutu- nean, kultur arloko eragileek Rajoyk agindutakoa gogoraraz- ten dute, alegia, egoera ekono- mikoa hobetzen zenean eraba- kia berriz aztertuko zuela. Aurtengo datu ekonomikoak ikusirik, une hori iritsia dela uste dute eta, lore eta landare- en kasuan egin den bezala, zer- ga jaisteko eskatu dute.

Izan ere, aurtengo urtarrila- ren 1etik aurrera lore eta landa- reen zerga %21etik %10era jaitسي da berriro. Zenbaiten ustez, egoera aldaketaren zantzua izan daiteke hori, lehengo fi- nantza arazo larriak desagertu egin direlako, eta kultur arloan bide berbera jarraitzeko eskatu diote espainiar gobernuari.

ZALANTZA DEZENTE

Baina gauza ez dago hain gar- bi. Segurutzat jotzen den gau- za bakarra da PFEZa eta Sozie- tateen gaineko Zerga jaitسيko direla. Bi kasu horietan euskal lurraldeetan eskumen osoak baditugu ere, ez da hala gerta- tzen BEZaren kasuan eta Ma- drilen hartzen diren erabakiak bete-betean ezarri beharko di- ra Hego Euskal Herrian.

Segurutzat ematen da Estatu espainiarrak PFEZa eta Sozietate- en gaineko Zerga jaitسي egin- go dituela, baina BEZarekin gauzak ez daude hain garbi, az- ken hau beste zergen jaitسيarak sortuko lukeen diru-sarreraren murrizketa orekatzeko erabili- ko litzateke-eta. Hori da, behintzat, nazioarteko erakun- deek behin eta berriz espainiar gobernuari egiten dioten go- mendioa.



Lore eta landareen sektorean pozik daude, BEZa %21etik %10era jaitسي baita 2015. urtean. Monika DEL VALLE | ARGAZKI PRESS

Izan ere, ez da hainbeste den- bora nazioarteko hainbat era- kundek Balio Erantsiaren gaine- ko Zerga igotzeko eskaria egin diotela Madrilgo gobernuari. Duela urte bat baino gutxiago, NDF eta ELGE erakundeek zerga murriztua duten ondasun eta zerbitzuen BEZa igotzeko eska- tu zioten, errekupeazio ekono- mikoa sendotzeko.

Modu honetan, gaur egun %10eko tipoa duten produktu gehienak %21era pasatuko lira- teke, eta oinarritzko produk- tuak biltzen dituen %4ko zerga murriztua ere %10era pasatu- ko litzateke. Hauen artean, ogia, esnea, arrautzak, fruta, barazkiak eta gazta daude, bai- na baita liburuak eta senda- gaiak ere.

Janari-saltzaileen eta bana- tzaileen erakunde nagusiek diotenez, %10eko zerga duten

Segurutzat jotzen den gauza bakarra Estatu espainiarrak PFEZa eta Sozietateen gaineko Zerga jaitسيko dituela da, baina BEZarekin gauzak ez daude hain garbi

Ez da hainbeste denbora nazioarteko hainbat erakundek, NDFk eta ELGEk kasu, BEZa igotzeko eskatu diotela Madrilgo gobernuari, errekupeazio ekonomikoa suspertzeko

LORE ETA LANDARE BIZIEN BEZ-A %21 ETIK %10 ERA JAISTEA, «ALBISTE OSO ONA»

Lore eta landareen merkataritza sektoreak albiste onekin abiatu du urtea, lore eta landare biziaren gaineko BEZa %21eko tasa arruntetik %10eko tasa murriztura pasatu baita 2015 honetan. Zerga murrizketa honek lore eta landare biziak lortzeko erabil daitezkeen haziak, bulboak, kimuak eta landare jatorri soileko bestelako produktuak barne hartzen ditu. 2012. urtean gobernu espainiarrak BEZaren igoera onartu zuen eta, ondorioz, ordura arte %8ko BEZa zuten lore eta landareak %21ekoa izatera pasatu ziren. Horrek, krisi egoera orokorrari gehituta, kalte handiak eragin dizkie bizitegi-tako ekoizle eta merkatariei. Sektoreak jakinarazi duenez, moztutako lore eta landare biziaren barne eskaera eta kontsumoa ia %50 jaitسي da azken bi urteotan. Gainera, Europar Batasuneko beste herrialde batzuekiko desabantaila konpetitiboa areagotu egin da, Herbehereetan, Estatu frantsesean, Alemanian edota Italian zerga murriztuak baitaizkate produktu mota hauek, %5-10 bitartekoak.

2012. urtean BEZa igo zenetik, CiU alderdiak behin eta berriz eskatu du Diputatuen Kongresuan lore eta landare biziaren gaineko zerga hori jaistea, eta alderdi horren bultzadaz onartu du gehiengoak aipatutako zerga jaitسيara. Izan ere, Katalunian lore eta landareen sektoreak pisu handia dauka. Estatu espainiarreko landareen inportazioaren %43 kontrolatzen dute Kataluniako enpresek, eta negozioa gogor astindu zuen 2012ko BEZaren igoera bortitzak. Hartara, analista politiko batzuen arabera, Mariano Rajoyk Artur Masi «oparitutako lorea» da sektoreko zerga jaitسيara hori.

Keinuak keinu, Euskal Herriko lore eta landare biziaren sektoreak pozik jaso du berria eta mesedegarria izango dela uste du.

janariak (haragia, arrain freskoa, haurrentzako janariak, olioak, jogurta, pasta edo kontserbak) familiek janarietan gastatzen dutenaren %64,2 suposatzen dute. Ondorioz, zerga %21era igotzeak 600 euro gehiago suposatuko lituzke, urtean, familia bakoitzarentzat.

Espainiar gobernuak ukatu egin du behin eta berriz igoera horiek aurrera eramango dituela, baina PFEZak eta Sozietateen gaineko Zergak behera egiten badute, gero eta aukera gehiago daude BEZaren igoera gauzatzeko.

MERKATARITZA ELEKTRONIKOA

Urte hasiera honek beste aldaketa bat ere ekarri digu zerga arloan, kasu honetan, Europa mailan. Izan ere, ondasun digitalak Internet bidez saltzen dituzten enpresek eroslearen herrialdeko BEZa aplikatu beharko dute aurrerantzean eta ez enpresa saltzailea finkatuta dagoen herrialdekoa. Kontsumitzaileen elkarteek diote-



Ondasun digitalen kasuan ere aldaketak izango dira 2015. urtean. Aurrerantzean, eroslearen herrialdeko BEZa aplikatu behar da, eta ez enpresa saltzailearen herrialdekoa.
GAUR8

Espainiar gobernuak aukera hori ukatu egin duen arren, PFEZak eta Sozietateen gaineko Zergak behera egiten badute, gero eta aukera gehiago daude BEZaren igoera gauzatzeko

Modu honetan, gaur egun %10eko tipoa duten produktu gehienak %21era pasatuko lirateke, eta oinarritzko produktuak biltzen dituen %4ko zerga murriztua ere %10era pasatuko litzateke

nez, aldaketa honek prezioen garestitzea ekarriko du, mota honetako salmenta gehienak egiten zituen enpresak, Amazon-ek, Luxenburgoko zerga aplikatzen baitzuen (%3koa), bertan baitu bere egoitza fiskala. Orain, ordea, liburu elektroniko bat erosi nahi badugu, %21eko zerga ordaindu beharko dugu. Berdin gertatuko da mugikorren aplikazioen kasuan, joko elektronikoetan edo musikan, besteak beste.

Aldaketa honekin, Europako Batzordeak konpetentzia desleiala ekidin nahi duela dio eta, bide batez, multinazionalak dituzten abantailak murriztu. Baina, bestalde, erabaki honek lan handiagoa suposatuko du enpresa txikientzat, erosleen herrialdeetako datuak bilatu beharko baitituzte. Lan hori errazteko, leihatila bateratua irekiko dute foru ogasunek, BEZaren likidazio bateratua egin ahal izateko. Ondoren, ogasunak arduratuko dira dagokien zatia beste estatuetara bideratzeaz.

Ez nire izenean

Antton Izagirre

«Charlie Hebdo» aldizkariaren aurkako eraso hilgarriaren aurrean frantziarrek erakutsi duten salaketa, elkertasun, dolu, nahigabe, haserre eta saminaz baliatuz, Mendebaldeko estatuek, komunikabide gehienek laguntzaz, beste behin ere, mundua bitan banatzeko joera eta boterea indartu nahi izan dute: onak eta gaiztoak, arrazionalak eta irrazionalak, ordenaren jabe direnak eta ordena ezarri behar zaienak, demokratak eta ez-demokratak....

Ezer baino lehen esan dezadan, borondate onez bere salaketa adierazi duten gizon-emakume guzti horiekin bat egiten

dudala, baina aldi berean pentsamendu bakarra ezartzearen aurka altxatu diren ahots guztiek gure atxikimendua merezi dute.

Ahots horien artean asko izan dira estatuburuak besoz beso elkar hartuta manifestarien buru jarri izana arbuiatu dutenak, beren estatu politikek eragiten dituzten sarraskiak eta heriotzak gogorazki dizkietenak. Komunikabideek gordin-gordin erakutsi dizkigute Parisen hildakoak, ez horrela Estatu frantsesak berak, Estatu Batuek edota Israelek sustatzen dituzten gatazka eta gerretan eragindako hildakoak, zaurituak eta suntsiketak. Bizi-

tzaren balio desorekatua: justiziaz hildakoak eta hildako injustuak nonbait orain ere. Hipokritak!

Frantziako kaleetan, Ipar Euskal Herrikoetan ere, erasoan ondorengo «Charlie Hebdo» berria erosteko grinak errenkada luzeak eragin ditu. Beharrezkoa ote zen adierazpen askatasuna defendatzeko ildo bereko karikaturak egiten jarraitzea? Adierazpen askatasunak giza talde ahulenen sentimenduak ez mintzeari ere erreparatu beharko lioke. Badu Frantziak boteretsuagoen bizkar non satira egin. Baina boteretsuenen itzala luzea denik ez dago zalantzarik. •